

HERRI AGINTEAK-EUSKALTZAINDIA

Hitzarmena: 2005-2010

Bilbo, egoitza, 2005-X-07

*Andres Maria Urrutia Badiola,
euskaltzainburua*

Euskal Autonomia Erkidegoaren Kultura Sailburua,
Gipuzkoako Foru-Aldundiaren Aldun Nagusia,
Araba eta Bizkaiko Foru Aldundien Kultura Aldunak,
Jarraipen batzordeko kideak eta herri-aginteen ordezkariak,
Euskaltzaindiaren zuzendaritza-kideak, euskaltzainburu ohia, euskaltzainburu ordea,
Jaun-andreok,

Egun on!

1919. urtean, gaur lakoxeko urriaren 7an, Euskaltzaindiak bere ibilbide akademikoari ekin zion, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan egin zuen lehen hileraren baten bidez.

1989. urtean, hirurogeita hamar urte geroago, orduan ere urriaren zazpigarren egunean, Oñatin sinatu zuten Euskaltzaindiak, alde batetik, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gobernuek, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundien ordezkariak, bestetik, euren arteko hitzarmena, Euskaltzaindiaren proiektu akademikoak eta barne antolakuntza babesteko eta garatzeko.

Egun ere, 2005. urteko urriaren 7an, laugarren hitzarmena sinatu da Euskaltzaindiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundien artean.

Juristok badakigu hitzarmenek zer-nolako indarra izaten duten gizartearen bizitzan. Areago, badakigu hitzarmenik egokienak ere, eguneratu eta egokitu behar direla, gizarteak berak eta erakundeek bilakaerak etengabeko aldaketak eta moldaketak izaten baitituzte.

Horrexegatik azpimarratu nahi ditut hemen hitzarmen berri honen punturik esanguratsuenak:

- a) Hitzarmen berriak ekarriko du Euskaltzaindiak esku artean dituen eta etorkizunean izan ditzakeen ikerkuntza-proiektuak esparru malguago batean kokatzea, diruzko zein bestelako baliabideetan.

- b) Hitzarmen berriak ekarriko du, bestenaz ere, urtero-urtero Euskaltzaindiak onesten dituen aurrekontuetarako eremu zehatza ezartzea, administrazio publikoetatik jaso beharreko diru-kopuruak urtero mol-datuko baitira Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera.
- c) Hitzarmen honek areagotuko du, zalantzarik gabe, Euskaltzaindiak teknika berriak garatzeko duen engaiamendua, ikerkuntza, teknika eta euskara uztarturik joan daitezen.
- d) Hitzarmen berria, bestalde, Euskaltzaindiaren eta administrazio publikoen arteko konfiantza-giro berri baten adierazlea da. Konfiantza eta gardentasuna, herritarrek eskubidea dutelako guztion diruak zertan inbertitzen diren jakiteko.

Inbertsio hitza darabilt, hala nahita, Euskal Herriaren mesederako inbertsioa baita Euskaltzaindiak inolako alderdikierarik gabe euskararen alde egiten duen lana. Hala egin dugu orain arte, eta hala egingo dugu aurrerantzean ere. Baliabideak ditugula, gure konpromisoak sendo izan behar du, diru publikoaren truk gizarteari eman behar diogun zerbitzua onuragarri izan dadin.

Poztekoa da, halaber, gaur administrazio publiko eta iritzi desberdinetakoen agintariak Euskaltzaindiarekin batera hitzarmen berriaren sinatzaileak izatea.

Hala gertatzeak, bestalde, Euskaltzaindiaren izaera eta egitekoa berrindartzen ditu, bera baita, herrialde euskaldunetan, euskararen erakunde ofizial bakarra. Nafarroako Gobernuaren eta Iparraldeko agintarien laguntza eta baliabideak ere eskertzekoak dira, horiek ildo beretik baitatoz, Espainiako Gobernuarenarekin batera, gure bizimodua aurrera ateratzeko arduetan.

Zuzendaritza berriak kargu hartzean argi esan zuen hitzarmen hau lehen-tasuneko gaitan zuela. Egun, hitzarmena sinatu dugula, eskerrak eman behar dizkiet, batetik, administrazio publikoen ordezkari, teknikari eta legelariei, hitzarmen berrirako prozesu luze horretan ahalegin bereziak egin dituztelako honako hau aurrera joan zedin. Orobat Euskaltzaindikoko kideei, eta, bereziki, zuzendaritza-kideei, gogotsu jokatu baitute hitzarmen hau gauzatzeko. Besteak beste, Euskaltzainburu ohiari, hura izan baita, oraingo eta aurreko zuzendaritza-kide guztiekin, Euskaltzaindiak tresna berri hau izan dezan bultzatzaile nagusienetako bat.

Urrats bat eman dugu orain, hitzarmena sinatzean. Besterako bidea ere ekarri beharko luke honek, gaurkoak bihar-etziko ikerkuntza eta antolakuntza berrietarako abiapuntua izan behar duelako Euskararen Akademian.

Esan dut.

Mila esker guztioi

EUSKO JAURLARITZAREN, FORU ALDUNDIEN
ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO
ESPARRU-HITZARMENA

CONVENIO MARCO ENTRE EL GOBIERNO VASCO,
DIPUTACIONES FORALES Y EUSKALTZAINDIA

PARTE-HARTZAILEAK

Batetik, MIREN AZKARATE VILLAR andrea, Kultura sailburua, Eusko Jaurlaritzaren izenean eta haren ordezkari;

FEDERICO VERÁSTEGUI COBIÁN jauna, Arabako Foru Aldundiaren Kultura, Gazteria eta Kiroletako foru diputatua, Arabako Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari;

BELEN GREAVES BADILLO andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako foru diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari, eta

JOXE JOAN GONZÁLEZ DE TXABARRI MIRANDA jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari.

Bestetik, ANDRES-MARÍA URRUTIA BADIOLA jauna, euskaltzainburua, Euskararen Errege Akademia — Euskaltzaindiaren izenean eta haren ordezkari.

Bost parte-hartzaileek, nork bere erakundearen ordezkari gisa, honako hitzarmen hau sinatzeko behar den adinako gaitasuna aitortzen diote elkarri.

AURREKARIAK

Lehenengoa. Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako foru aldundiek 1918an Euskaltzaindia sortu zutenetik, erakunde horien laguntasun, onespent eta diru-laguntza izan ditu Euskaltzaindiak.

Bigarrena. Erregimen politikoa aldatu zenean, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuak Euskaltzaindia aitortu zuen, 'Euskararen Errege Akademia — Euskaltzaindia'ren izena emanez, eta, aldi

INTERVINIENTES

De una parte, Doña MIREN AZKARATE VILLAR, consejera de Cultura, en nombre y representación del Gobierno Vasco;

Don FEDERICO VERÁSTEGUI COBIÁN, diputado foral de Cultura, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Álava, en nombre y representación de dicha institución;

Doña BELEN GREAVES BADILLO, diputada foral de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, en nombre y representación de dicha institución, y

Don JOXE JOAN GONZÁLEZ DE TXABARRI MIRANDA, diputado general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en nombre y representación de dicha institución.

De otra parte, ANDRES-MARÍA URRUTIA BADIOLA, presidente de Euskaltzaindia — Real Academia de la Lengua Vasca, en nombre y representación de dicha institución.

Los cinco intervinientes, en calidad de representantes de sus respectivas instituciones, se reconocen mutuamente capacidad suficiente para otorgar el presente convenio.

ANTECEDENTES

Primero. Euskaltzaindia, desde que fuera fundada en 1918 por las diputaciones forales de Bizkaia, Gipuzkoa, Álava y Navarra, ha contado con el apoyo, reconocimiento y ayuda financiera de tales instituciones.

Segundo. Al producirse el cambio de régimen político, el Decreto 573/1976 del 26 de febrero reconoce a la Academia de la Lengua Vasca bajo la denominación de 'Real Academia de la Lengua Vasca—

berean, haren estatutuak onetsi zituen.

Hirugarrena. Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua, euskara Euskadiko hizkuntza ofizialtzat hartzearekin batera, Euskaltzaindia aitortzen du, euskarari dagozkion gaitan erakunde aholku-emaile ofizial gisa. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak bere babesa, onespena eta dirulaguntza eskaintzen dizkio Euskaltzaindiari.

Laugarrena. Herri-aginte sinatzaile hauek Euskararen Errege Akademia — Euskaltzaindiaren jardura suspertu eta bermatzeko hainbat neurri hartu dituzte azken urteotan, hasieran banan-banan, eta, harrezkero, arian-arian modu bateratuan.

Bosgarrena. Goian aipatutako protokoloaren arabera, herri-aginte sinatzaileek eta Euskaltzaindiak ondoko hauek hitzartu dituzte:

HITZARKINAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea

1.1. Hitzarmen honen xedea bi dira: alde batetik, Euskaltzaindiaren, eta Eusko Jaurlaritzaren, eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetako foru aldundien arteko lankidetzarako oinarri orokorrak ezartzea; eta, beste alde batetik, Euskaltzaindiaren etorkizuneko jarduna bermatzeko alderdi bakoitzak bereganatzen dituen konpromiso materialen zein finantzamenduaren arlokoen esparrua arautzea.

1.2. Beste lurralde batzuetako herri-aginteak ere hitzarmen honetara bildu ahal izango dira, aldeaz aurretik horretarako eskaera eginda, eta esku hartzen duten

Euskaltzaindia', al tiempo que se aprueban sus estatutos.

Tercero. El artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, además de declarar el euskara lengua oficial del País Vasco, reconoce a Euskaltzaindia como institución consultiva oficial en lo referente al euskara. Por ello, el Gobierno Vasco otorga su apoyo, reconocimiento y ayuda financiera a dicha institución.

Cuarto. En los últimos años, las diferentes administraciones públicas suscribientes han adoptado, primero individualmente, y, progresivamente, de forma conjunta, distintas medidas orientadas a fomentar y garantizar la actividad de esta Real Academia de la Lengua Vasca — Euskaltzaindia.

Quinto. A tenor de lo expuesto, las administraciones públicas suscribientes y Euskaltzaindia acuerdan las siguientes:

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto del convenio.

1.1. El presente convenio tiene por objeto establecer las bases generales de colaboración entre Euskaltzaindia, por una parte, y el Gobierno Vasco y las diputaciones forales de los territorios históricos de Álava, Bizkaia, y Gipuzkoa por otra, así como regular el marco de compromisos tanto financieros como materiales que cada parte asume con el fin de garantizar la actividad futura de la institución.

1.2. Podrán incorporarse a este convenio las administraciones públicas de otros territorios, adhiriéndose al mismo, previa solicitud, y aceptación de todas las partes

Handwritten signatures and initials in the left margin, including a large signature at the top, a star-like mark, and initials at the bottom.

alderdi guztiek eskaera hori onartuta.

1.3. Urtero-urtero, Jarraipen Batzordeak proposamena egin beharko du, eta hori herri aginte sinatzaileek berretsi beharko dute; haren bitartez zehaztuko dira sinatzaile bakoitzak urteko ekitaldian bere gain hartuko dituen betebeharrak.

Bigarrena.—Hitzarmenaren indarra

2.1. Hitzarmen honek ondorioak sortuko ditu 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera eta urtero luzatu ahal izango da 2009.a arte, berau barne, beti ere parteren batek salatzen ez badu.

2.2. Hala ere, eraginkorra izateko, beharrezkoa izango da herri-aginte sinatzaile bakoitzaren aurrekontuetan horretarako aurrekontu-kreditu nahikoa eta egokia izatea.

2.3. Alderdi sinatzaileetakoren batek hitzarmena salatuz gero, hitzarmenaren zehaztapan guztiek indarrean segituko dute gainerako alderdientzat, harik eta beste testu bat sinatu arte. Testu berri horrek ezarriko ditu egoera berriaren arabera egokiak diratekeen baldintzak. Edozein kasutan ere, ez da zama ekonomiko handiagorik sortuko beste alderdientzat.

Hirugarrena.—Euskaltzaindiak bere gain hartzen dituen konpromiso orokorrak

Hitzarmen hau dela bide, Euskaltzaindiak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

3.1. Aurrekontu-, ekonomia- eta finantza-izaerakoak

suscribientes.

1.3. Anualmente, mediante propuesta de la Comisión de Seguimiento del presente convenio que habrá de ser ratificada por las administraciones públicas suscribientes, se concretarán las obligaciones a asumir por los firmantes en cada ejercicio.

Segunda.- Vigencia del convenio.

2.1. El presente convenio surtirá efectos desde el 1 de enero de 2005, pudiendo prorrogarse anualmente hasta el año 2009, éste incluido, siempre y cuando no medie denuncia de ninguna de las partes.

2.2. No obstante, su efectividad quedará condicionada a la existencia de crédito presupuestario adecuado y suficiente al efecto en los respectivos presupuestos de las administraciones públicas suscribientes

2.3. En caso de denuncia del convenio por alguna de las partes suscribientes, el mismo seguirá vigente en todos sus términos para el resto de las partes hasta la formalización de un nuevo texto, que vendrá a establecer las condiciones adecuadas a la nueva situación. En cualquier caso, dicha denuncia no devendrá ninguna carga económica adicional para las otras partes.

Tercera.—Compromisos de carácter general que asume Euskaltzaindia

En virtud del presente convenio, Euskaltzaindia asume los siguientes compromisos:

3.1. De carácter presupuestario, económico y financiero

Hitz.


3.1.1. Uztailaren 31 amaitu baino lehen, urteko behin-behineko aurrekontuak aurkeztuko dizkio Euskaltzaindiak Jarraipen Batzordeari, hurrengo ekitaldiari dagozkionak. Aurrekontu horien gehikuntza, ehunekoetan, Hitzarmen honek finkatutako zehaztasunen arabera izango da.

3.1.2. Aurrekontuen gaineko informazioak bereizirik eman beharko ditu ondoko hauek:

A) Alde batetik, gastu-sarreraren aurrekontu arrunta; hau aurkeztu beharko da behar bezala banaturik, eta garrantzi berezia emango zaie langileen gastuei, jardunbiderako beste gastu batzuei, inbertsioei, kapitaleko beste gastu batzuei eta ustekabeko sarrerei.

B) Beste aldetik, programaz programako aurrekontua, eta honetan jasoko dira dagoeneko abian dauden programak eta azpiprogramak, bai eta abian jarri nahi direnak ere; betiere, langileen gastuak, jardunbidekoak eta kapitalekoak banatu beharko dira, aurrekontu honi egotzi behar bazaizkio, eta ez badira egiturarenak; programa eta azpiprograma hauengatik sarrerak badira, horiek ere jaso beharko dira.

3.2. Aurrekontua betearaztekoak eta diru-laguntza frogatzekoak

3.2.1. Ekitaldi bakoitzeko otsaila amaitu orduko, aurreko ekitaldiari dagozkion ondoko agiriok aurkeztuko dizkio Euskaltzaindiak Jarraipen Batzordeari:

a) Ekitaldiaren bukaeran erakundearen finantza- eta ekonomia-egoera zein zen erakusten duten kontabilitate-agiriak, eta egoera-balantzea, baita urtean urteko

3.1.1. Con anterioridad al 31 de julio, Euskaltzaindia presentará a la Comisión de Seguimiento sus presupuestos provisionales anuales para el ejercicio siguiente, con un incremento porcentual que se adaptará en todo caso a las estipulaciones previstas en el presente Convenio.

3.1.2. La información presupuestaria habrá de contemplar de forma diferenciada:

A) Por una parte, el presupuesto ordinario de gastos e ingresos, que deberá presentarse debidamente desglosado, con especial incidencia en los gastos de personal, otros gastos de funcionamiento, las inversiones, otros gastos de capital e ingresos previstos.

B) Por otra, el presupuesto por programas, en el que se habrán de incluir tanto los programas y subprogramas ya en marcha como aquellos que se pretendan iniciar, y, en todo caso, con desglose de los gastos de personal, de funcionamiento y de capital imputables al mismo que no sean de carácter estructural, así como, en su caso, de los ingresos afectos al mismo.

3.2. De ejecución del presupuesto y justificación de la subvención

3.2.1. Con anterioridad a finalizar el mes de febrero de cada ejercicio, Euskaltzaindia presentará a la Comisión de Seguimiento la siguiente documentación correspondiente al ejercicio precedente:

a) La documentación contable que registre la situación económico-financiera de la institución al final de dicho ejercicio y el balance de situación, así como la liquidación

Handwritten signatures and initials on the left margin, including a large signature at the top, a smaller one below it, and several initials and marks at the bottom.

sarrera-gastuen aurrekontuen eta programaz programako aurrekontuaren likidazioa ere.

b) Horrez gain, oroitidazkia aurkeztuko die jasotako funts publikoak zertan erabili diren azalduz; eta, agiri horrekin batera, bidezkoa denean, burututako jardueraren ondorioz sortu diren gastuen frogagiriak — jatorrizkoak edo fotokopia egiaztatutak —, bai eta horri buruz egokia den informazio oro ere.

c) Era berean, jakinarazi beharko du beste diru-laguntza edo laguntza batzuk jaso dituen, edo sarrerak edo baliabideak, hala bere jarduera arrunta egiteko, nola bere programa eta azpiprogramak bururatzeko, horiek datozela edozein entitate edo pertsonarengandik, direla publikoak, direla pribatuak; horrez gain, jakinarazi beharko dio edozein inguruabar objektibo nahiz subjektibo, halakoa kontuan hartu bada hitzarmen hau formalizatzeko.

3.2.2. Indarreko arautegiaren arabera, hitzarmen hau betetzearen ondoriozko funts publikoak jaso baino lehen, Euskaltzaindiak egiaztagiria ekarriko ditu, eta agiriotan egiaztatu beharko da zerga-betebeharrak bete dituela, bai eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak eginda dituela ere, halakoak badagozkie.

3.3. Konpromiso material eta jarduerakoak

3.3.1. Euskaltzaindiak, behin-behineko aurrekontuekin batera, jarduteko urteko plana aurkeztuko du, berak bururatu nahi dituen programa eta azpiprogrametarako.

3.3.2. Jarduera-planak aipatu beharko ditu, nahitaez, programa eta azpiprograma bakoitzeko finkatutako xedeak; haren pertsona arduradunak edo batzorde

de los presupuestos de gastos e ingresos y del presupuesto por programas del ejercicio.

b) Una memoria justificativa de la aplicación dada a los fondos públicos percibidos, a la que adjuntará, en su caso, los justificantes originales o fotocopias compulsadas relativos a los gastos ocasionados por la actividad desarrollada, así como cuanta información sea pertinente al respecto.

c) Asimismo, deberá comunicar la obtención de otras subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para el desarrollo de su actividad ordinaria y para la ejecución de sus programas y subprogramas, procedentes de cualesquiera entidades o personas, tanto públicas como privadas, así como la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la formalización del presente convenio.

3.2.2. De conformidad con la normativa vigente, con anterioridad a la percepción de los fondos públicos que se deriven del cumplimiento del presente convenio, aportará la documentación acreditativa de estar al corriente de las obligaciones tributarias así como de los pagos a la Seguridad Social que le corresponden.

3.3. De carácter material y de actuación

3.3.1. Euskaltzaindia, junto con los presupuestos provisionales, presentará un plan anual de actuación de los programas y subprogramas que pretenda ejecutar.

3.3.2. El plan anual de actuación deberá hacer referencia a los objetivos fijados para cada programa o subprograma, las personas o comisión académica responsables del

Handwritten signatures and initials in the left margin, including a large signature at the top, a smaller one below it, and several initials and marks at the bottom.

akademiko arduraduna; bera egiteko behar diren eskuarte materialak, giza baliabideak eta antolaketakoak; lortu beharreko emaitzaren jabetza intelektualari buruzko kontuak, halakorik badago; urteko kostu zehaztua, bai eta bera betearazteko aurrekusi diren epe eta faseen kronograma ere.

3.3.3. Urte anitzetarako planen kasuan, azaldu beharreko urteari dagokion zatia zehaztuko da.

3.3.4. Euskaltzaindiak, aurrekontuen likidazioarekin batera, txosten bat emango du, hala hitzarmenaren betetzeari dagokionez, nola bere jardura arruntaren inguruko ekonomi arazoei dagokienez.

3.3.5. Programa eta azpiprogramen ibileraren eretzean, Euskaltzaindiak haien bururatzaren inguruan behar den beste informazio emango du, bai eta haiei dagozkien ekonomia kontuez ere, eta garapen normalaren etena dakarketen inguruabarren berri ere emango du.

3.3.6. Era berean, Euskaltzaindiak behar den beste informazio osagarri emango du, Jarraipen Batzordeak nahiz herri aginte sinatzaileetako edozeinek eskatzen dion neurrian.

3.3.7. Aurrekontu-ekitaldian zehar, Euskaltzaindiak herri-aginte sinatzaileen ekarpena ukituko lukeen programa edo azpiprograma berriren bat abian jarri nahi izanez gero, aldeztu aurretik proiektu hori aurkeztuko dio Jarraipen Batzordeari, beronek onesteko.

Proiektu horretan zehaztuko da zein den diruz hornitzea eskatzen den programa edo azpiprograma horren urteko behin-behineko aurrekontua, eta banan-banan zehaztuko

mismo, los medios materiales, humanos y de organización necesarios para su realización, las cuestiones referentes, en su caso, a la propiedad intelectual del resultado a obtener, su costo anual pormenorizado, así como un cronograma de los plazos y fases previstas para su ejecución.

3.3.3. En el supuesto de planes plurianuales, se especificará la parte del año que corresponda.

3.3.4. Euskaltzaindia, junto con la liquidación de los presupuestos, remitirá un informe acerca del cumplimiento del convenio y de las cuestiones económicas referentes a su actividad ordinaria.

3.3.5. En relación con la marcha de los programas y subprogramas, Euskaltzaindia facilitará la información necesaria acerca de su ejecución, así como de las cuestiones económicas referentes a los mismos, e informará de cuantas incidencias supongan una interrupción de su normal desarrollo.

3.3.6. Euskaltzaindia facilitará, asimismo, cuanta información complementaria le sea solicitada por la Comisión de Seguimiento o cualquiera de las administraciones públicas suscribientes.

3.3.7. Si Euskaltzaindia pretendiera iniciar, en el curso de un ejercicio presupuestario nuevos programas o subprogramas que afecten a las aportaciones de las administraciones públicas suscribientes, presentará con antelación el correspondiente proyecto a la Comisión de Seguimiento para su aprobación.

En dicho proyecto se especificará el presupuesto provisional anual del programa o subprograma para cuya ejecución se solicita la asistencia financiera, con desglose

Handwritten notes and signatures on the left margin, including a large signature at the top and a smaller one at the bottom.

dira langileen gastuak, jardunbidekoak eta kapitalekoak, alegia, hari egotz dakizkiokeenak, egiturarenak ez badira, bai eta aurreko 3.3.2. klausulan adierazitako kontuak ere.

de los gastos de personal, de funcionamiento y de capital imputables al mismo que no sean de carácter estructural, así como los mismos extremos señalados en la cláusula 3.3.2 anterior.

3.4. Beste konpromiso batzuk

3.4. Otros compromisos

3.4.1. Jarduera-planean ezarritako jarduerak normaltasunez burutzeko prozesuan eragina izan dezakeen gorabeheraren bat gertatuz gero, horren guztiaren berri emango dio Euskaltzaindiak hitzarmen honetan sortzen den Batzorde Teknikoari, eta batzorde horrek laguntza behar badu, programa nahiz ikerketa-proiektuei buruzko oroitidazkia eta txostenak interpretatzeko, orduan laguntza hori emango dio Euskaltzaindiak, doan eman ere.

3.4.1. Euskaltzaindia informará a la Comisión Técnica prevista en el presente convenio de cuantas incidencias pudieran afectar al normal desarrollo de las actividades previstas en el plan de actuación y prestará desinteresadamente cuanta asistencia se precise para la interpretación de los informes y memoria de los programas y proyectos de investigación.

3.4.2. Euskaltzaindiak bere azterketa- eta ikerketa-zerbitzuak erabiltzeko aukera emango die hala nahi duten ikertzaile guztiei, ikertzaileok Euskaltzaindiak alde aurretik horretarako finkatu dituen baldintzak betetzen badituzte.

3.4.2. Euskaltzaindia permitirá el acceso a sus servicios de estudio e investigación a todos aquellos investigadores que, previo cumplimiento de los requisitos a tal efecto establecidos con anterioridad por Euskaltzaindia, así lo deseen.

3.4.3. Euskaltzaindia elkarlanean arituko da unibertsitateekin eta beste erakunde akademiko batzuekin hizkuntzalaritzaren alorreko ikertzaileak trebatzeko, horretarako beren beregi sinatzen diren hitzarmenen bidez.

3.4.3. Euskaltzaindia colaborará con las universidades y otras instituciones académicas en la formación de investigadores en materia lingüística a través de los acuerdos y convenios correspondientes.

3.4.4. Euskaltzaindiak bere zerbitzuak eskainiko dizkie herri-aginteei (Eusko Jaurlaritzari, foru aldundiei, udalei eta bestelako erakunde publikoei), hizkuntzari buruzko erakunde aholku-emaile den heinean, indarreko lege eta xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritz.

3.4.4. Euskaltzaindia ofrecerá a los poderes públicos (Gobierno Vasco, diputaciones forales, ayuntamientos y otras instituciones públicas) sus servicios como órgano consultivo en lo referente a la lengua, conforme a lo establecido en las leyes y demás disposiciones vigentes.

3.4.5.- Euskaltzaindiari dagozkio hitzarmen honen babesean sor daitezkeen lanen

3.4.5.- Corresponde a Euskaltzaindia la titularidad de los derechos de propiedad

gaineko jabetza-intelektualaren eskubideak, betiere kode-iturrien eta lanon inguruko dokumentazio teknikoaren gaineko jabetza barne dela.

Nolanahi ere, Euskaltzaindiak Herri Administrazio sinatzaileen eskura jarriko ditu, beren asmoak betetzeko beharrezko ikusten dituzten heinean, ustiaketa ekonomikoa izan dezaketen aurreko atalean aipatutako sorkuntza lanen eskubideak. Eskura jartze hau modu hobereanean egingo da aipatutako Herri Administrazioen kasuan. Hala, eskura jartze honetatik edo etorkizuneko eguneratzeetatik sor daitezkeen baina eskuratzea eskatu duten herri aginteek ordaindu ez dituzten kostuetara mugatuko dira soilik ordain litezkeen kopuruak.

Era berean, Euskaltzaindiak administrazio sinatzaileekin edozein eratako hitzarmenak dituzketen gainerako erakundeen esku jarriko ditu hitzarmen horietan jasotako proiektuak edo/eta jarduerak burutzeko behar izan ditzaketen osagaiak ere. Eskuratze honetarako baldintzak eta xehetasunak Jarraipen Batzordeak erabakiko ditu.

3.4.6. Herri-aginte sinatzaileen baimenik gabe, Euskaltzaindiak ezingo du gehitu Erakundearen langile finkoen zerrenda ez eta hitzarmen honen babespean dauden proiektu, programa eta azpiprogrametan ari diren langileena ere.

Laugarrena.— Hitzarmena izenpetzen duten herri-aginteen konpromisoak

4.1. Hitzarmena izenpetzen duten herri-

intelectual sobre las obras que puedan crearse al amparo de este Convenio, incluida la propiedad sobre los códigos fuente y la documentación técnica correspondiente a dichas obras.

Ello no obstante, Euskaltzaindia pondrá a disposición de las Administraciones Públicas firmantes aquellos derechos susceptibles de explotación económica de las creaciones a las que se refiere el párrafo anterior, que aquéllas requieran para el desarrollo de sus propios cometidos. Esta puesta a disposición se efectuará de forma ventajosa a dichas Administraciones Públicas de manera que las cantidades que puedan llegar a abonarse se restrinjan a los costes derivados de la puesta a disposición y/o de actualizaciones futuras no sufragadas por la/s Administración/es Pública/s que hayan solicitado la correspondiente puesta a disposición.

Igualmente Euskaltzaindia pondrá a disposición de terceras Entidades con las que las Administraciones firmantes tengan suscritos acuerdos de cualquier naturaleza, los contenidos que las mismas requieran para acometer los proyectos y/o actividades contemplados en tales acuerdos. Los términos y condiciones de tales puestas a disposición serán acordados por la Comisión de Seguimiento.

3.4.6. Euskaltzaindia no podrá, sin autorización de la Comisión de Seguimiento, incrementar la plantilla del personal fijo de la Institución ni el personal que trabaje en los proyectos, programas y subprogramas patrocinados a través de este convenio.

Cuarta.— Compromisos de las administraciones públicas suscribientes

4.1. Las administraciones públicas

agintek honako konpromiso hau hartzen dute: beraiak arduratuko dira, behar den aurrekontu-zuzkidura izendatzeko beharrezkoak diren neurriak har daitezen, urtean urteko aurrekontuak jasotzen dituzten lege zein foru-arauen proiektuetan, Euskaltzaindiari hitzarmen honetan ezarritakoa gauzatu ahal izateko behar bezainbateko laguntzak emateko.

4.2. Herri-aginte sinatzaileek Euskaltzaindia diruz lagunduko dute, bere jarduerari eusteko. 2005ean diru-laguntza hori 2.575.456 (bi milioi bostehun eta hirurogeita hamabost mila eta laurehun eta berrogeita hamasei) €-koa izango da.

Hitzarmena luzatuz gero, ekarpen horrek, orokorki, aurreko urteko abuztuaren 31n indarrean zegoen urte-arteko KPI-a aplikatetik sortzen den kopuruaren adinako gehikuntza izango du.

4.3. Diru-ekarpen horrek, ezarritako mugen barruan betiere, diru-laguntza izaera izango du, Euskaltzaindiaren aurrekontu akademikoa orekatzeko beharrezkoa den heinekoa.

4.4. Edozelan ere, diru-laguntza horren zenbatekoak ezin izango du finantzatu Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Legeak Herri Administrazioaren zerbitzupeko langileentzat aurreikusia dagoen baino langile-gastuen ehuneko-gehikuntza handiagoa.

4.5. Herri-administrazio sinatzaile bakoitzari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa

suscribientes del convenio se comprometen a velar por la efectiva asunción de las medidas necesarias que hagan posible la consignación en los correspondientes proyectos de ley o normas forales presupuestarias de carácter anual de la dotación necesaria a los efectos de conceder a Euskaltzaindia las ayudas que hagan posible la realización de lo previsto en el presente convenio.

4.2. Las administraciones públicas suscribientes contribuirán económicamente al sostenimiento de la actividad de Euskaltzaindia con una aportación de 2.575.456 (dos millones quinientos setenta y cinco mil cuatrocientos cincuenta y seis) € durante el año 2005.

En caso de prórroga del convenio, dicha aportación experimentará, con carácter general, un crecimiento anual equivalente a aplicar el IPC interanual vigente al 31 de agosto del ejercicio inmediatamente anterior.

4.3. La citada aportación económica, dentro del límite establecido, tendrá la naturaleza de subvención en la medida necesaria para equilibrar el presupuesto académico de Euskaltzaindia.

4.4. En cualquier caso, el importe de dicha subvención no podrá financiar un incremento porcentual de los gastos de personal superior al previsto por la Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el personal al servicio de la Administración Pública

4.5. El importe de la subvención correspondiente a cada administración

ondorengo hau izango da, 2005. urtean:

Eusko Jaurlaritza: 1.717.576 euro.

Arabako Foru Aldundia: 128.073 euro.

Bizkaiko Foru Aldundia: 439.181 euro.

Gipuzkoako Foru Aldundia: 290.626 euro.

Hitzarmena luzatuz gero, Administrazio bakoitzari dagokion ekarpena Euskal Finantza Kontseiluak baliabideak banatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen finantzamendurako Foru Diputazioen ekarpenak finkatzeko ezartzen dituen koefizienteak 4.2. atalean ezarritako kopuru osoari, eguneratu ondoren, aplikatuz gertatzen dena izango da.

pública suscribiente para el año 2005 será el siguiente:


Gobierno Vasco: 1.717.576 €

Diputación Foral de Álava: 128.073 €

Diputación Foral de Bizkaia: 439.181 €.


Diputación Foral de Gipuzkoa: 290.626 €.

En caso de prórroga del convenio, el importe correspondiente a cada Administración será el que resulte de la aplicación de los coeficientes establecidos por el Consejo Vasco de Finanzas para la distribución de los recursos y determinación de las aportaciones de las diputaciones forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco a la cifra total establecida en el apartado 4.2, actualizada.



4.6. Herri-aginte sinatzaileek, Euskaltzaindiak hala eskatuz gero, konpromisoa hartzen dute lan-taldeak eraketa aztertzeko, non, Hitzarmen hau bete eta garatze aldera, Herri Aginte horien zerbitzura dauden langileek parte har dezaketen, Jarraipen Batzordeak zehaztutako zenbait lan gauatzeko helburuarekin.


Bosgarrena - Prozedura



